

noaua



**Joxan Artzeren
antologia bat
aurkeztuko dute
larunbatean**

**‘Hotzak akabatzen’
probarako dortsal
gutxi batzuk geratzen
dira oraindik**



Auzolanean Oria ertzak lehengoratzten

6. or.

KAFE GARAIA

Joxe Mari Irazusta:

“Administrazioek gure etsipena
lortzea dute helburu”



Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake eta an-tzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

54 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 17tik 28ra (biak barne)

ATE IREKIEN eguna (urtarrilak 15, 11:00etan)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus

Albisteak iruditan

Hirugarrenez gainezka eginda

Hilabete eta erdian hirugarren aldiz uholdeak aste hasiera honetan, oraingoak txikiagoak ordea. Zubietan hasi eta Aginagaraino erribera batzuetan muturra sartu zuen Oriak urtarrilaren 10ean, Txikierdi-Zubietan arteko bideko Aliri zubi ondoko zati bat ere urpean utzi zuen. Bezperatik “prezipitazio iraunkorragatik” abisu horian ginen. Ez zirudien berriz ere urak gorantz hainbeste egingo zuenik baina bai.

45 bat eguneko tartean hirugarren aldiz jaso ahal izan ditugu albiste honen ondokoak bezalako argazkiak eta hori da hain zuzen datu azpimarragarriena. Azaroa amaieran aste hasierako tankerako uholde txikiak izan ziren, eta handik bi astera, abenduaren 10aren bueltan euri-jasa gehiago eta uholde handiagoak.



Hilabete eta erdian hirugarren aldiz gainezka egin zuen Oriak aste hasieran.

Erriberen zati edo eremu gehiago bereganatu zituen Oriak, baita etxe atariren

batzuk ere. Aste hasieran erriari begira ginen berriz.

Laburrean

5.000tik gorako intzidentzia

Markak hausten jarraitzen dugu. 5231,45eko intzidentzia izatera heldu da covid19a Usurbilen. Inoizko kasu gehien zenbatu ziren urtarrilaren 8an, 35. Hilabete hasieratik 216 positibo detektatu ditu Osasun Sailak udalerrri honetan.

Autogestio gehiago

Covid19a izanez gero, berri ematea nahiz laneko “bajak” online, norberak, autogestio bidez kudeatzea sustatzen ari da Osasun Saila. Aurrerantzean gainera, farmazian eginiko test positiboa ez da osasun sistemari jakinarazi beharko.

Hondakinak 8:30etarako

Hondakinen bilketa zerbitzuaren ibilbidean aldaketak txertatu dituztenez, Usurbilgo Udalaren Atez Ateko bulegotik hondakinak goizeko 8:30etarako ateratzea eskatu dute, “zenbait auzoetatik ohi baino lehenago pasa baitaitezke”.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Afrikaren kontzientzia

Hegoafrikan segregazio arrazistaren kontra borrokatu zuen Desmond Tutú artzapezpikua hil da Lurmuturreko Hirian. 90 urte zituen. Minbiziak eragindako infekzio ondorioz zendu da. Une honetan bizitza publikotik erretiraturik bazegoen ere, azken unera arte mantendu zituen giza eskubideak defendatzeko bere printzipioak. Hegoafrikako presidentearen esanetan “lider espiritual handi bat izan zen, Apartheidaren kontra eta oro har giza eskubideen aldeko aktibista aparta”.

1931n jaio zen; irakasle izateko ikasketak egin zituen aurrena eta gero teologia. Eliz anglikanoaren apezpiku ordenatu zuten 1975ean; berehala hautatua izan zen Hegoafrikako Elizen Kongresuko buruzagi. Hori plataforma bikaina izan zen bere borroka aurrera eramateko. 1984an Bakearen Nobel saria eman zioten. Leahrekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen (Anglikanoen artean zelibatoa aukerakoa da).

Apartheid (bereizketa da bere esanahia) sistemak 1992ra arte iraun zuen. Leku bereziak sortu zituzten arraza ezberdinentzat eta botoa emateko eskubidea zuriak bakarrik zuten. Zuriak eta beltzen arteko ezkontza de-



“Lider espiritual handi bat izan zen, Apartheidaren kontra eta oro har giza eskubideen aldeko aktibista aparta”.

LUIS ARANALDE

“Euskal Herriko bake prozesuaren laguntzaile izan zen, eta 2014an ETak desarmatzean emandako urratsak txalotu egin zituen”

bekatua zegoen. Beltzak zuriak esklabo izan ziren hiru mendeetan zehar. Praktikan zuriak beltzen jabe bihurtu ziren.

Bidegabekeria giro honetan, Desmond Tutúren jarrera garbia izan zen. Ez zen kontent “jabe sentitzen zenaren mahaitik erortzen ziren papurrak jatearekin, giza eskubideen menu osoa” eskatzen zuten. Borroka jarrera horrek adierazten du Mandelarekin izan zuen harreman estua. Hegoafrikako lehen Presidente demokratiko aukeratua izan zenean, Tutú artzapezpikua jarri zuen Egia- ren eta Berradiskidetzaren

Komisioko buru. Bere lana izan zen ikertzea segregazio sistemaren eta etnien arteko biolentziaren krimenak. Mandelaren ondorengo gobernua ustelkeriaz beterikoa izan zen eta Tutú bere zigor bihurtu zen segituan.

Giza eskubideen aldeko lan horretan beste arlo batzuetan ere saiatu zen tinko: homosexualitatea eta transexualtasuna zeresanik ez, erasoak zeuden Hegoafrikan. Beren defendatzaile sutsua izan zen. HIESa izurrite latza izan zen Hegoafrikan eta Tutú preserbatiboak zabaltzearen alde zegoen. Gaixoak duintasunez hil daitezen eutanasia defendatzen zuen.

Euskal Herrian ere arrasto handia utzi zuen lider hegoafrikarrak. Bake prozesuaren laguntzaile izan zen, eta 2014an ETak desarmatzean emandako urratsak txalotu egin zituen.

2008an René Cassin (baionarra zen eta Bakearen Nobel saria eskuratu zuen 1968an) saria eman zion Eusko Jaurilaritzak. Fermin Muguruza musikariak ere penaz hartu du lider espiritualaren heriotza eta 1985. urtean Kortatu taldearekin batera eskaini zion kantua- ren inguruan hitz egin du. “Desmond Du” izena du abestiak, eta musikariak sareetan adierazi duenez, har- ren borrokari eskainia da.

Gizon kozkor (1,68) hura, beti irribarretsu eta purpura koloreko sotana gisako bat jantzita, abusu klase guztiak etengabe salatu zituen. Nazismoaren aurka borrokatu zuen Dietrich Bonhoefferrengan inspiratu zen. Hon- ek esaten zuen: “etikarik gabeko erlijioa akabatua dago”. Urkatua izan zen Hitlerren garaian. Bere Eliza Luteranoa ere oso gogor kritikatu zuen, erakunde erlijioso hori isildu egin baitzen nazismoaren aurrean.

Desmond Tutúren esaldi ezagunena izango da agian honako hau: “egoera bidegabeetan neutrala bazara, zapaltzailearen aldea aukeratu duzu”. Frantzisko Aita Santuaren hitz batzuekin bukatu nahi nuke gogoeta- txo hau: “arrazen berdintasunaren eta berradiskidetzaren promozioan saiatu zen etengabe”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Bidean bat egin zuten, Sarek deituta

Osasun krisialdiak Bilboko manifestazio jendetsua egitea eragotzi eta udalerrietara eraman zituen euskal preso, iheslarien eta deportatuen eskubideen aldeko eta salbuespenezko espetxe politika “gehiago luzatu gabe, bertan behera uzteko” mobilizazioak Sarek urtarilaren 8an. Usurbilen ere bat egin zuten herritarrek “elkarbizitzarako, bakerako, etxerako bidean” aldarriaren bueltan. Mikel Laboa plazan bertsotan hasi eta musikaz girotuta amaitu zen manifestazio batek Kaxkoa zeharkatu zuen. “Herri solidarioa gara, eta hala erakutsi dugu gaurkoan ere”, adierazi zuen Sarek amaieran. Bide horretan urrats berriak ematera deitu zuten. “Elkarrekin, lortuko dugu”. Datorren mobilizazioa, urtarilaren 28an, 20:00etan Mikel Laboa plazan.



Osasun eta pentsio sistema publikoen aldeko deialdiak

Lau urte igaro dira pentsio publiko duinen alde kalera ateratzen hasi zirenetik. Laugarren urtemuga honetarako mobilizazioak iragarri ditu Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak. Aste hasieratik itxialdia egiten ari dira Donostian. Gipuzkoako hiriburuan bertan manifestazioa deitu dute gainerakoetan bezala, larunbaterako, urtarilaren 15erako. Eguerdiko 12:00etan

abiatuko da Alderdi Ederretik, “lau urte eta gero borrokak darrari” aldarripean. “Dei berezia egiten diegu pentsiodun, langile eta, oro har, gizarte guztiari Euskal Herriko kaleak betetzeko”. Urteotako eskaerak plaza-ratuko dituzte: 2011, 2013 eta 2021eko “erreformen alderdi atzerakoia indargabetu egin behar dira eta ez dira aplikatu behar”; KPI errearen igoera berehala aplikatzea 2021eko atzerapenean eta pentsioen

errebolorizazioan; 1080 euroko gutxieneko pentsioa eta 1200 euroko gutxieneko soldata; genero arrakalarekin amaitu eta alarguntza pentsioa %100ekoa izatea; soldata duinak, “dagozkien kotizazioek gure gaurko pentsioak ordaintzen dituzte” eta.

Osasun sistema publikoaren alde

Baliabide falta nabaria izan eta herritarren beharrak as-

paldidanik asetu ezin dituen Osakidetzaren egoera larria salatzeke manifestazioa deitu dute ELA, LAB, SATSE, CCOO eta UGT sindikatuek urtarilaren 23rako EAE-ko hiriburuetan. Donostiako 12:00etan abiatuko da Bulebarretik. Langileak, herritarrak eta eragile sozialak parte hartzera deitzen dituzte. “Osasun publikoa bizi aseguru kolektiboa dugu eta, zalantzarik gabe, defendatu behar dugu”.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
baskariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Joxe Mari Irazusta: “Atez atekoaz gain, auzo konposta komunitarioa ere Usurbilen abiatu zen”

Hamaika herri egitas-motan eragiten aritu da hamarkada luzez. Azken aldi luzean hondakinen eta orohar, ingurumen gaietan murgildua, Anerreka elkar-tean. Joxe Mari Irazusta dugu aste honetako “Kafe Garaia” ataleko gonbidatua.

NOAUA!ren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte? Zertan ari zinen?

Joxe Mari Irazusta: Aspaldiko kontuak dira horiek. Ordurako Argia aldizkarian nenbilen, betidanik horretan jardun izan naiz, kudeaketa lanak egiten. Baina beti konbinatu izan dut nire ogibidea beste talde eragileetako militantzia lanarekin. Ordurako hamarkada bat egin nuen udaletxean (zinegotzi gisa aritu zen 93ra bitarte), eta segidan sartu nintzen Aitzaga elkartearen eta tabernaren sorreran. Burubelarri sartu nintzen horretan. 1994an ireki zen Aitzaga eta segidan-segidan Aitzaga Kultur Taldea sortu genuen. Hirukote bat besterik ez ginen baina orain klasiko bat den Artisau Azoka orduan sortutako zerbaite da. Beste ekitaldi batzuk ere jarri genituen martxan baina hori mantendu da. Aspaldiko kontuak dira baina duela 25 urte horrelako egitasmoetan nenbilen.

Zinegotzi gisa aritu zinen duela urte asko. Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko sortzaileetako bat izan zinen eta Errausketaren Aurkako Mugimenduko kideetako bat zara gaur egun. Duela gutxi kargu hartu zenioten Udalari. Usurbil 0.0 bide orrian jasotako helburuetatik urrun gelditzen ari dela salatu zenuten



“Gaikako bilketa asko hobetu da garai haietatik Gipuzkoan, eta askoz hobeia izan zitekeen Donostiak eta besteek ere beste jarrera bat hartuko balute”.

JOXE MARI IRAZUSTA
Gipuzkoa Zero Zabor
martxan jarri zenean,
“Usurbilgo atez ateko
bilketa eta bere emaitzak
erakustea garrantzitsua
zen, noski, baina
auzo konposta
komunitarioarena ere
hemendik abiatu zela
gogoratu beharra dago”

NOAUA!n plazaratutako gutun baten bidez.

Lehenik eta behin Gipuzkoa Zero Zaborren nondik norakoak azaltzea komenigarria dela uste dut. Usurbilen egoera historikoa bizi izan genuen, hau da, atez atekoa jartzeaz gain, hurrengo urtean erreferendum bat egin zen. Hori oso garrantzitsua zen garai hartan. Aurrerago gehiago egin dira, baina garai haietan oso oso gutxi egiten ziren.

Erabaki genuen horrek ezin zuela Usurbilgo kontu bat bakarrik izan. Usurbilgo esperientzia hori, zabor bilketa

eraginkor horren berri eman eta ezagutarazi egin behar genuela erabaki genuen. Horretarako sortu genuen Gipuzkoa Zero Zabor, eta hortik sortu ziren Zero Zabor taldeak hainbat herritan. Gipuzkoako 3.000 bat biztanletik gorako herri gehienetan izan ginen gure metodoa azaltzen. Erraustegiaren aurka egoteaz gain, alternatibak badaudela erakutsi eta errealtate ere badirela erakutsi nahi genuen. Ez zen erraza, eraso mediatiko handi baten barnean ibili behar izan genuen, baina oso aberasgarria izan zen. Usurbilen bilketa eraginkorraz gain, praktikan oso eraginkor eta berritzaileak geneuzkan. Atez ateko bilketa eta bere emaitzak erakustea garrantzitsua zen, noski, baina auzo konposta komunitarioarena ere hemendik abiatu zela gogoratu beharra dago. Hori beste lerro bat izan da jada ondo finkatuta dagoena.

Sortzez besteko ordainketa, oraingoz gainera, Usurbilen bakarrik dago Gipuzkoan eta hori ere hemendik sortu zen.

Badago beste bat, ia kon-turatu gabe pasatzen dena, baina 2015ean Usurbilen Kilo-metroak izan zen eta ekitaldi handietan hondakinen kudeaketa eraginkorra nola egin behar den orduan erakutsi genuen. Europan ere aurkeztu zen proiektua. 2015. urtera arte Udala erreferentziazkoa izan zen praktika onak zabaltzen. Hortik aurrera, haus-tura bat gertatu zen.

Egia da Gipuzkoako datuak ematen direnean, egurra ematen zigutela lehen eta orain dominak jartzen dizkigutela. Nik oso garbi daukat Usurbilen atez atekoa abian jartzeak eragin zuela Gipuzkoan gaur egun dagoen errealtatea. Harrezkero, sistema pertsonalizatuetara jo dute herrietan. Donostia bakarrik geratzen da, eta Irun ere bai. Tartean beste herriren bat ere egon daiteke erabat inpersonala den sistema horrekin. Gaikako bilketa asko hobetu da garai haietatik eta askoz hobeia izan zitekeen Donostiak eta besteek ere beste jarrera bat hartuko balute.

“Hiri Hondakinen Udal Ordenantza praktikara eramango balitz, errefus kopuru handi bat jaitsiko litzateke”

NOAUA! Usurbil 0.0 bide orriari buruzko gutun hartan, fokua industria eta komertzioetan jarri zenuten. Udalak sektore horietan gehiago egin dezakeela ondorioztatu zitekeen. Zein neurri har daitezke Usurbilgo gaikako bilketaren emaitza are hobeagoa izan dadin?

Joxe Mari Irazusta: 0.0 planari buruz, horren zergatia azaltzea beharrezkoa dela. Hemen ere beste erreferendum bat dago erreferentzia modura. Zer dela eta daukagu Usurbilen 0.0 plana? 2016an beste erreferendum bat izan zen Usurbilen errausketari buruzkoa. Eragileok hartu genuen eskua hor, Udalari legeak ez ziolako baimentzen eta abar. Han parte hartu zuten ia guztiek, %99ak ezezko borobila eman zuen. Udalak lekukoa hartu eta errespetatzen eta errespetarazten saiatuko zela agindu zuen. Aldi berean, errausketa beharrezkoa ez zela erakusteko plan bat garatuko zuela ere agindu zuen, eta guk San Marko mankomunitatetik aterako zela ere espero genuen, hori dena agindu baitzuen errausketaren aurka egiteko. Hortik sortu zen Usurbil 0.0 plana, 0 hondakin erraustu jasota daukana.

Gutunaren bidez erreklamazio bat egin nahi genuen. Guri asko kostatu zitzaigun idatzi hura lantzea, izan ere, Udalari eskatutako agiriak ez genituen eskuratzen eta Jaurlaritzak horrelako kasuetarako daukan Gardentasun Batzordera jo behar izan genuen denon eskura egon behar duten dokumentu horiek eskuratu ahal izateko. Ia hiru hilabete pasatu ziren tarte horretan, ebazpen bidez agindu egin zioten Udalari dokumentu horiek ematea, eta orduan eskuratu genituen. Haiek eskuetan genituela eta ikusita Udalak ez zuela balantzerik egiten, kontuan izanda



“Injustizia bat gertatzen ari da, hau da, ondo egiten dutenek kuboan ateratzen dute errefusa eta behar dena ordaintzen dute, eta gaizki egiten dutenek edozein poltsatan atera eta edonon uzten dute. Hori dena jaso eta kito, begi bistatik kentzen dute eta ez da horren jarraipena egiten”.

JOXE MARI IRAZUSTA

“Industria eta komertzioetan ari da sortzen errefus gehien Usurbilen”

Usurbil 0.0 plana 2017an hasi eta 2023an amaitzen dela, denbora erdia pasata zegoela. Guri gutxiengoa iruditzen zitzaigun ordura arteko balorazioa egitea. Ez genuen beste munduko gauzarik egin, jarrita zeuden helburuak eta errealtatea konparatu gogora ekartzeko zein tarte dauden. Eta tarte handiak daude. Eman ematen genituen emaitzetatik helburuetara tarte handia dago. Horren aurrean, udal gobernuak ez du deus ere esan. Gaikako bilketa hobeteari buruz, industria eta komertzioetan begia jarri genuen hor ari delako sortzen errefus gehien Usurbilen. Datuak gainontzeko lurraldean baino hobeak dira, baina guk gure burua hobetu behar

dugu; hori da gure erronka. Herrian sortzen den errefus guztia %60-%65 lerro horretan sortzen da. Hain zuzen, karakterizazioa edo noizbehinka egiten den neurketa datu horiek baditugu, eta hor argi azaldu da %32a birziklagarria dela. Kantitate handia da hori. Datu horiek tonatara eramanda, 400 bat tona dira, eta hori kopuru handia da birziklagarria izateko. Udalak badauzka tresnak horri aurre egiteko eta horietan esanguratsuen Hiri Hondakinen Udal Ordenantza da. Nahasian agertzen diren industria eta komertzio horiekiko nola jokatu behar duen oso garbi jasota dago Udal Ordenantza horretan, eta hori praktikan jarri behar da. Hori praktikara eramango balitz ziur nago kopuru handi bat jaitsiko litzatekeela errefus horretatik.

Badaude beste gauzatxo batzuk ere. 0.0 planak zortzi 0 aipatzen ditu, eta badago 0 hondakin birziklagarri gaika bildu gabe. Hau da, birzikla-

garri guztiak gaika bilduko direla esaten duen puntua. Gero konturatzen gara gure kaleak garbitzen dituen makina horrek nahasian biltzen dituela, eta hori guztia errefusera joaten da. Udala ez da eredu ona praktika on horiek erakusteko, guztion begi bistan egiten baita.

Azkenik, gai potolo bat aipatzearen, izan ere, gai txiki-txoagoak ere badaude, hilean bitan egiten den etxekako errefus bilketa horretan ere askoz zorrotzago jokatu beharra dago. Puntu honetan injustizia bat gertatzen ari da, hau da, ondo egiten dutenek kuboan ateratzen dute errefusa eta behar dena ordaintzen dute, eta gaizki egiten dutenek edozein poltsatan atera eta edonon uzten dute. Hori dena jaso eta kito, begi bistatik kentzen dute eta ez da horren jarraipena egiten. Garrantzitsua da hori egitea bai kopuru aldetik eta baita justiziaren ikuspegi horretatik ere.

“Administrazioek gure etsipena lortzea dute helburu”

NOAUA! Anerreka elkarteko kide ere bazara. Orain bi urte, Udarregi ikastolako aire kalitatea kezkarria zela salatu zenuten. Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen dituen batez besteko kutsadura-mugak gainditzen zituela zenioten. UCIN ingurutik eratorritako isurketak kezka iturri izan dira azken urteotan. Une honetan zein da egoera?

Joxe Mari Irazusta: Legedi berri bat dago European Ucin eta antzekoen jarduerarentzat, eta enpresa horiek ingurumen baimen bateratua berritu behar izan dute. Baimen horiek neurri batean Jaurlaritzak ematen ditu, eta bestalde Udalak ere bai. Jaurlaritzak 2020ko ekainean eman zion Ucini baimena, eta Udalak 2021eko otsailean. Kontua da legedia berri horrek eskatzen duela tximiniari ezarritako hainbat parametro modu jarraian neurtzea. Lehen urtean, hiru edo lau aldiz etortzen ziren teknikoak enpresak erabakitako egun eta orduan, eta ordainketa ere enpresak egiten zuen nahi zituen teknikoak deituta. Horrek adierazten du neurketen emaitzak zeintzuk izan zitezkeen. Legedia berriak lau edo bost parametro zehazten ditu jarraian neurtzera behartzen dituen.



“Ucinek auzitara eraman zuen Udal legea betetzeko eskatu ziolako, eta bide hori auzitan dago”.

JOXE MARI IRAZUSTA

“Legedi berri bat dago European Ucin eta antzekoen jarduerarentzat”

Hori da ebazpenean Udalak eskatu ziona Ucini, baina Jaurlaritzak parametro horietako bat edo bi baino ez zizkion eskatu. Ucinek auzitara eraman zuen Udal legea betetzeko eskatu ziolako eta bide hori auzitan dago. Guk horren parte izan nahi genuen, baina horretarako dirua eskatzen ziguten, guk baliabiderik ez daukagunez, kanpoan

geratu ginen. Udalak momentuz ez digu berririk eman auzia zertan den azalduz. Aldi berean, jakinda neurketa horiek jarraian egin behar direla, guk egin duguna da 2021eko urtarrilaren 1etik gaurdainoko datuak eskatu Jaurlaritzari; irailean eskatu genituen. Ohikoa da erantzunik ez jasotzea eta epe bat utzi genuen pasatzen. Ondoren, Arartekora jo genuen batetik eta Jaurlaritzaren Gardentasun Batzordera bestetik. Hilabete batzuk pasatu dira eta egun hauetan iritsi zaigu Gardentasun Batzordearen erantzuna guri arrazoia emanez. Informaziorik oraindik ez dugu

eskuratu, ordea. Susmoa dugu ez ote dagoen hori martxan, baina tira hori egiaztatzeko eskatu genituen datuak eta ez zaizkigu iritsi oraindik. Jarrera hau administrazioen aldetik jarraikorra da. Eurek beraientzako diren legeak ere ez dituzte betetzen eta herri eragileontzat oso nekagarria da horrela jardun behar izatea administrazioarekin. Administrazio guztiek jokatzen dutela horrela esango nuke, bereizketarik egin gabe, estrategia horrekin. Jakitun dira herri eragileok ditugun baliabideak urriak direla eta gure etsipena lortzea dute helburu.

“Efemerideen ataltxo bat ondo etorriko litzateke”

NOAUA! 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Joxe Mari Irazusta: Lehenbizi eskerrak eman behar dizkizuet zeren NOAUA herrian erabat txertatuta dagoen proiektu bat izatea lortu duzelako eta hori ez da erronka makala.

Botatzen hasita, noizbait izan ditudan burutazioak botako dizkizuet. Herriko historiari buruzko erreportajeak botatzen ditut faltan. Gauza asko aipa daitezke. Badaude

enpresa esanguratsuak desagertu direnak; garai batean bazen tren bat ez dakit nondik ibiltzen zena; frontoiaren eta Dema Plazaren historia; desagertu den etxea... Horrek herriari buruzko ezagutza zabaltzen lagunduko luke. Badakit miaketa lan bat eskatzen duela baina bada ekarpen bat nik gustura hartuko nukeena.

Ez zara antzekorik proposatu duen bakarra.

Ondo da. Efemerideak ere aipa-

tuko nituzke. Gauza asko gertatu dira herri honetan eta efemerideen ataltxo bat ondo etorriko litzateke gogorapen bezala.

Beste puntu bat. Udalgintzari lotutako hainbat gaietan ikuspegi ezberdinak daude eta iruditzen zait hor NOAUAK baduela sakontzeko eremu bat. Udal taldeek duten iritziaz haratago, herrian eztabaida eta iritzi ezberdinak daudenean, NOAUA! sustatzaile eta eragile ere izan daitekeela iruditzen zait.

Eta bukatzeko, gauzatxo bat:

beti kezkatu izan nau kanpotik etortzen den jende berriak. Nola herriratu, nola hurbildu gure kulturara eta gure hizkuntzara... Ataltxo bat ondo ikusiko nuke NOAUA!n, pertsona horietako batzuen aurpegiak eta bizipenak ezagutzeko –zeren tartean bizipen latzak eta gorriak badaude-. Horrelako kontuekin osatutako atal batek, haiei harreara egiteko beste prestutasun bat adieraziko luke gure aldetik.

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduraz kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: urtarrilaren 17tik 28ra

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

baikara 
Gipuzkoako IGEen federazioa

**AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil**

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Auzolanean Oria ertzak lehengoratzen

Auzolanaren balioa modu praktiko eta argian nabarmendu zuen urtarrilaren 4an Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak. Herria garbi, txukun mantentzeko hitzordua finkatua zuen, garbitik ezer gutxi duten Oria ertzetan. Zumartegi industriagunean bildu ziren. Beharrezko tresnak hartu eta ibai ertzerantz gerturatu ziren, zikinkeria biltzerantz, zikin baino zikinago baitaude errio ertzak.

Zuhaitz adarretatik zintzilik apaingarriak ziruditen, baina ez. Oria ertzetako zuhaitzak zaborrez josiak daude, baita lurzorua ere. Hondakinak ondo baino txertatuta kasu askotan naturan.

Uholdeek ekarri dituzte asko eta asko, baina urak jaitsi direnean lehendik zeuden beste hainbat azaleratu dituzte udazken amaierako euriteek. Irudiotan ageri dena, inguruotatik Oria ertzetan aurkitu daitekeenaren lagin bat baino ez da, urtarrilaren 4an Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak deitutako auzolanaren bidez



Aztarrika Gazte Asanbladako hainbat kide errio bazterreko hondakinak jasotzen aritu ziren urtarrilaren 4an.

HONDAKIN UGARI

Uholdeek ekarri dituzte asko eta asko, baina urak jaitsi direnean lehendik zeuden beste hainbat azaleratu dituzte

garbitu, txukundu nahi izan zutena.

Dozena bat poltsa bete zituzten

Goiza, Oria alboko eremu konkretu batean lanean igaro zuten. Hainbat hondakin ateratzea kosta zitzaien, ondo baino hobeto txertatuak baitzeuden naturan. Materialez jositako dozena bat poltsa bildu zituzten. Barruan, denetariko hondakinak.

Auzolanean

Gogotik saiatu eta nabarmen txukundu zuten, baina eremu honen antzera da zonaldeko errio ertz osoa. Halako auzolan gehiagoren beharra begi bistakoa da. Eta bistan denez, badugu zer hobetua herriaren zaintzan, kasu honetan, errioaren zaintzan.



Irudiotan ageri dena, inguruotatik Oria ertzetan aurkitu daitekeenaren lagin bat baino ez da.



Hainbat hondakin ateratzea kosta zitzaien, ondo baino hobeto txertatuak baitzeuden naturan.

“Oria ertzak egoera berean daude, ez dakigu noraino”

NOAUA! Zer da aurkitu duzue-na Oria ertzera jaitsitakoan?

Aztarrika Gazte Asanblada:

Kanpotik baino bertara sartzean dagoen egoera hobeto ikusten da. Jertse bat aurkitu dugu sustraiak barrutik zituela, urteak zeramatzan botata. Lur azpitik zabor pila bat ateratzen da. Ikusten duzu oihal edo plastiko zati bat lurrean. Jasotzera joan eta azpitik bapatean pusketak. Bazegoen sustrai bat galtza batetik sartuta, dena hain ustela, deseginda, segituan puskatzen dela. Botatako hondakin asko bertan pilatzen da eta ez da jasotzen.

Abenduko uholdeen ostean deitu duzue auzolan saioa. Bildutako hondakinak, ez dira ordea uholdeek ekarritakoak?

Itsasadarrean gaude ia. Hirugarren herria da hau Orio eta Aginagaren ostean. Hainbat herri daude goialdean, horko guztia hona dator. Hemen hasi gara hondakinak jasotzen baina urte askotakoa oraindik hemen dago. Zuhaitzetan plastikoak...

Denetarik aurkituko zenuten.
Disko gogor bat adibidez. Txa-



“Botatako hondakin asko bertan pilatzen da eta ez da jasotzen”, Aztarrikakoek aditzera eman dutenez.

AZTARRIKA

“Hemen hasi gara hondakinak jasotzen baina urte askotakoa oraindik hemen dago. Zuhaitzetan plastikoak...”

tarra asko, gurpilak, arropa dezente, atzerako ispiluak, plastikoa, karro bat oso egoera

onean. Kide batek eraman du erabiltzeko. Bere egoera ikusita, gertukoa izango da eta orain gutxiakoa. Eta uholdeek ziurrenik erriberetatik eramandako plastikoak.

Aurkitu duzuenak zer islatzen du?

Garbiagoak izan behar garela. Eta garbiketa lana sei lagunen

artean ezin da egin. Hau zonalde bakar bat da, zabor askoz gehiago dago eta ez dugu auzolanarekin garbitu. Aztarrika Gazte Asanbladak deitua zuen auzolan saio hau, baina parte hartzera animatu daitezke baita helduak eta gaztetxoak ere. Gazte asanbladak deitu duelako ez da soilik gazteei zuzenduriko deialdia.

“Kanpotik begiratuta badirudi ez dagoela hainbeste zabor, baina bertara jaitsi eta lau zaku bete ditzakezu”

NOAUA! Ibaiari bizkar emanda bizi omen gara. Ez diogu begiratzen edo begirunea falta zaigu?

Aztarrika Gazte Asanblada:

Ez diogu beste herri batzuk bezainbesteko garrantzia ematen. Garbi dago ez zaio la ematen. Bestela begiratu, egoera zein den ikusi eta ez

molestatzea... Kanpotik begiratuta badirudi ez dagoela hainbeste zabor, baina bertara jaitsi eta metro karratu batean lau zaku bete ditzakezu hondakinez.

Auzolan honi segida ematearen aldekoak izango zarete?

Halako ekimenak maizago

egitearen aldekoak. Gaur garbitutakoa eremu bat baino ez da izan. Oria ertzak egoera berean daude, ez dakigu noraino. Txokoalde ingurua hau baino okerrago dago. Hona etorri gara leku hau irisgarria zelako eta leku ona auzolanerako. Baina hemen egonda ibaiaren beste aldera begi-

ratu eta zikinkeria nonahi ikusten da. Aipatu moduan, gazte asanbladatik plazaratu dugu deialdi hau baina herri osoarentzako zen, ez zen gazteak etortzeko soilik. Azkenean gazte asanblada ingurukoak etorri gara. Hala ere, jende gehiago etortzera animatzen dugu.

Errege magoak Usurbilen izan ziren

Urtarrilaren 5ean agertu ziren errege magoak Urdaigatik barrena, Santuenea zeharkatu eta Usurbilerara. Meltxor, Gaspar eta Baltasar laguntzailez inguratuta sartu ziren herrian eta kalejiran ibili ziren, amaiera ekitaldirik gabe.

Arratsaldeko 19:15ak aldera Santueneara jaitsi eta Usurbilerako bidea hartu zuten zaldian hiru erregeek, eta oinez suzko antortzekin laguntzaileek. Aurrekusi moduan, herrian barna ordubete inguruko itzulingurua egin, eta Udarregi Ikastolaren parean antortzak itzali, eta desagertu egin ziren erregeak eta laguntzaileak. Osasun krisialdiaren harira, aurrekusi moduan, harrera



Osasun egoera dela eta, aurrekusi moduan, amaierako ekitaldirik ez zuten egin pilaketak ekiditeko.

ekitaldirik ez zuten ospatu frontoian pilaketak ekiditeko.

Errege Egunean, herriko hainbat umeez erregeek utzi-

tako opariak aurkitu zituzten zuhaitz azpian.



Arratsaldeko 19:15ak aldera Santueneara jaitsi eta Usurbilerako bidea hartu zuten zaldian hiru erregeek, eta oinez suzko antortzekin laguntzaileek.



Meltxor, Gaspar eta Baltasar laguntzaileez inguratuta sartu ziren herrian eta kalejiran ibili ziren.

Kulturgileen bilgunea eraikitzen segitzeko saioa

Usurbilgo kulturgileen elkar-gunea eraikitzen hasteko prozesua martxan da iragan urte amaieratik. Bigarren lan saioa deitu dute larunbaterako, urtarrilak 15, 10:00-13:00 artean Potxoenean. Herri honek duen

altxorrari, bizitzari alegia “zukua ateratzeko” beharretik abiatu zuten dinamika hau azaroa amaieran, lau helburuon bueltan: sorkuntza bultzatzea, sortzaileei plazak eskaintzea, sorkuntza horien komunikazioa eta transmisioa.

“Ahalik eta parte hartze zabalena” izatea nahi dute, bertan hausnartu eta finkatuko dira eta, “etorkizuneko helburu, funtzionamendu eta jardun guztiak”. Guztia, “Usurbilgo etorkizuneko kulturgileen elkargunea eraikitzeko bi-

dean”. Azaroko lehen saioan, euskarak kulturaren eta kulturak euskararen duen garrantziaz hausnartu zuten talde txikietan. Prozesuari segida emango diote, larunbaterako Potxoenean deitu duten bigarren lan saioarekin.

Urtarrileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Ondo dago urtea kiroldegiko kuota ordaintzen hastea.

Hileko aholkua: Baina ordaintzeaz gain joan ere egin behar da, aizu!

**CANCER**

Maitasunarentzat hilabete aproposa izango duzu hauxe, adi ibili!

Hileko aholkua: Lotsak alde batera utzi eta ausartu zaitez gabonetan oparitu dizuten kolonia berria estreinatzen!

**LIBRA**

Urtarrileko maldak ez du barakatzen eta kontuz ibili beharko duzu diru-kontuekin.

Hileko aholkua: Txerri itxurako elzteitsua zure lagunik onena izango da, emaiozu jateko!

**CAPRICORNIUS**

Zure urteak pandemiaren seigarren olatuan ospatu beharko dituzu, eta argi ibili beharko zara.

Hileko aholkua: Ea konfinamendua surfeatzen duzun!

**TAURUS**

Dagoeneko nazkatuta zaude gabonetako oturuntza handiekin, eta dieta aldatu beharrean zaude.

Hileko aholkua: Eskerrak txotx garaiak hasi behar duen!

**LEO**

Gabonetatik bueltan eta dagoeneko udaberriko oporrak noiz iritsiko zain zaude.

Hileko aholkua: Egutegi berriari kendu lehen hiru orriak eta listo!

**SCORPIUS**

Bizitza berri bati ekiteko prest zaude aurten, emozio asko ekarriko dizkizuna.

Hileko aholkua: NOAA!ko bazkidetza egiteak hori ziurtatzen dizu, zergatik ez probatu?

**AQUARIUS**

Planetak zure maitasun kontuekin lerrokatuta daude, baina kontuan izan oraindik pandemian gaudela.

Hileko aholkua: Ez nahastu gel hidroalkoholikoa eta lubrifika-tzailea!

**GEMINI**

2022. urtean zure bizitzari zentzua aurkitzen saiatuko zara.

Hileko aholkua: Pentsatu al duzu inoiz odol emailea izaitea? Gero mokadu bat ematen dizute eta denok pozik!

**VIRGO**


Maiteminduta zaude baina horrek ez du esan nahi burua galdu behar duzunik.

Hileko aholkua: Ez, berak egindako antigeno testa ezin duzu zuk erabili!

**SAGITARIUS**

Lehen zaila bazen, parrandak berriro debekatu dituztenetik ligatzea oso zaila da. Onena mugikorreko aplikazio horietako bat erabiltzen hastea izango duzu.

Hileko aholkua: Ez dakigu ligatuko duzun, baina entretenitu ziur baietz!

**PISCIS**

Sobratutako turroi eta polboriak jaten segitzen duzu, erretiluan azkenak geratzen diren almendra azukretuak barne.

Hileko aholkua: Badakigu errutinarako buelta zaila dela, baina azukreak ez du dena konpon-tzen!

Hipodromoa herrira gerturatzen

Bere izen abizenak ETB-k abenduaren 16an eskaini zuen “Biba Egunean Behin” lehiaketaren final handia irabazi berritan agertu zitzaizkigun telebista pantailan. Baina lerrootan mintzagai dugun beste zaletasunik ere badu; zaldien munduari, Zubietako hipodromoari lotutakoa. Garaipena eta afizioa batu ditugu Jon Arroyo Alkortak NOAUA!-ri eskaini dion elkarrizketa honetan.



Jon Arroyo zaldilasterketak.eus web orrialdearen sortzaileetako bat da.

NOAUA! Zaldien munduarekiko hartuemana non jaiotzen da?

Jon Arroyo Alkorta: Lasartearra izanda txikitatik beti hipodromora joan izan naiz. Zaldi jabea izan naiz beste 20 lagunekin batera, oso dibertigarria izan zen. Pisu epailea eta komisarioa ere bai, lasterketen arbitroa alegia. Tarteka aldizkari batean edo bestean artikuluak idazten ditut. Itxialdia heldu zenean, lehendik nuen ideia bat gauzatzeko unea iritsi zen, alor honi buruzko web orrialde bat euskaraz egitekoa, zegoen hutsunea betetzeko. Beste usurbildar batekin, Jon Sanzekin bildu nintzen eta berak aurrera egiteko asmoa agertu zuen.

JON ARROYO

“Beste usurbildar batekin, Jon Sanzekin bildu nintzen eta berak ere aurrera egiteko asmoa agertu zuen. Itxialdian ginela, aukera ederra izan zen. Horrela sortu genuen zaldilasterketak.eus web orria”

Itxialdian ginela, aukera ederra izan zen. Hor sortu genuen zaldilasterketak.eus web orria. Egitasmo honetako kide dugu David Argindar argazkilaria, hipodromoko argazkilaria ofiziala, zorte handia dugu.

Web orri dibulгатzailea?

Hipodromoak badu jende madrildarra dabilen estigma hori baina euskal giroko jendea mugitzen dela ikusten genuen. Bertara doanak Lasarte nahiz Usurbilgo jende nahikoa ikusiko du, tartean euskaldun asko. Ez zegoen gai honi buruzko ezer euskaraz. Bozgorailuetatik informazioa erdaraz eta euskaraz ematen da baina ez dago beste ezer. Web orriak alde dibulгатibo da, izan ere euskal hiztegi bat sortzen ari gara. Terminologia zehatzeko mundua da, oso berezia, hiztegia egiten ez da erraza. “Egun bat hipodromoan” bezalako

atal bat sortu genuen, bertara lehen aldiz doanarentzako aurkezpen batekin. Hipodromoko nahiz nazioarteko txapelketen pronostikoak, kronikak lantzen ditugu. Nik nazioartekoa lantzen dut, Jon Sanzek hemen goaren jarraipena egiten du. Urrezko kopa heltzean bideoak sortzen ditugu euskaltzaleei hitza emanez, bakoitzak faboritoa nor duen adieraz dezan, saltsa pixka bat sortu eta euskaraz bizirik egon dadin hipodromoan.

Zubietako hipodromoa nazioartean non kokatzen da?

1916an ireki zen hipodromoa. Estatu mailan Madrilgoa da hipodromo nagusia, dirua hark banatzen du, haren arabera hemengoa antolatzen da. Oraintxe bertan Frantzia bigarren industria da zaldi lasterketena, kotxeenaren ostean. Hipodromo hau hango sarean sartzen dute eta nazioarteko ikusgarritasuna ematen diote. Ez dira izaten munduko lehen mailako lasterketak, baina profesionalak nahiko onak dira. Hemengo zaldiei errentagarritasun handia ateratzen zaie Frantziara bidaiatuta.

“Familientzat plan polita da hipodromora joatea”

NOAUA! Zer nolako hipodromoa da web gune bidez jendarteari aurkeztu nahi diozuena?

Jon Arroyo Alkorta: Aurkeztu nahi diogun irudia da, hemengo hipodromo baten irudia. Familia bati igande arratsalde batean hipodromora joan dadila gomendatuko nioke. Azkenean kirol ikuskizun bat da aire librean, familientzako oso egokia dena. Apustuen mundua hor dago, baina beste mundu asko daude. Dakien

norbaitekin joango balira askoz hobeto, baina benetan plan oso polita da familientzat arratsalde bat hipodromoan igarotzea.

Euskarazko zuen webgunea nori zuzendua legoke?

Bi helburu genituen. Batetik, hor gauden euskaldunak denak ezagutzen gara eta haien tzat, esperientzia dutenentzat zerbait landuagoa egitea. Eta bestalde, hasiberriarentzat edo inoiz hipodromora joan ez denari ere zuzenduriko materia-

la sortzea: hiztegia, “egun bat hipodromoan” atala, zaldi odol garbia zer den azaltzen duen dibulгатzio lana... Erronka handia da agian bi lagunen artean lantzeko, baina hutsune hori betetzen badugu gu gustura.

Afizioa ofizio bilakatzeko aukera planteatu duzue?

Ez. Komisario edo epaile izatek igaro naiz. Hau pasioa da.

Uda partean izaten da bizien hipodromoa ezta?

Ekainetik iraila hasierara izaten da martxa gehiena. Sevillako hipodromoa itxita dagoenez, jardunaldi batzuk izango dira apirilean. Urtean zehar nazioartera begira izaten gara. Orain Pauko hipodromorako pronostiko batzuk egiten ari gara Twitter kontuan. Nazioarteko txapelketen jarraipena egiten dugu urtean zehar.

Sarean: zaldilasterketak.eus
Sare sozialetan: zlasaterketak.

“29.000 lagunek parte hartu zuten ‘Egunean Behin’-eko finalean, arrakasta itzela”

NOAUA! Egunean Behin lehiaketako txapelduna. Bidaia bat irabazi duzue. Erabaki duzue noiz, nora joan?

Jon Arroyo Alkorta: Bidaia agentzia batean 2.000 euro gastatzeko txartel bat da saria. Ez du epe muga edo zehaztasunik. Egoera dagoen bezala, oraindik erabakitzeke dugu, baina agian Paris aldera joko dugu.

Nola bizi izan zenuten garai-pen gaua?

Kalera gindoazen baina ETB-ko saioa hasita zegoela konturatu eta azkenean ez ginen atera. Hasieran berokia jantzita hasi ginen parte hartzen kale-ira gindoazelako eta lehiaketan murgildu ginen.

Edizio baten amaiera gaua zen. Nolako izan da zure parte hartzea?

10 astez egon da txapelketa eta ondoren final bat egin da zuzenean ETB-n, non 29.000 lagunek parte hartu duten, arrakasta itzela. Finalean nik bakarrik 10 galderak asmatu eta saria niretzat, zorte handia izan dut.

Finalera iristeko denetarik jakin behar da?

Kultura orokorreko galderak izaten dira, baina zuzeneko saio batean zortea izan behar da. Dakizkizun edo gutxi gora-behera ezagutzen dituzun gaiei buruzko galderak egokitzea da gakoa. Normalean 8-10 galdera asmatzen ditut baina egun



‘Egunean behin’ lehiaketa irabazteagatik, bidaia-agentzia batean 2.000 euro gastatzeko bonua eskuratu du.

JON ARROYO

“Normalean 8-10 galdera asmatzen ditut baina egun horretan dena alde atera zen, bi hamarreko atera nituen eta finalean ere beste hamarreko bat. Dena bikain atera zen”

horretan dena alde atera zen; bi hamarreko atera nituen eta finalean ere beste hamarreko bat. Dena bikain atera zen.

Zer du lehiaketa honek hainbeste parte hartzaile erakartzeko?

Euskaldun izateak militante izatea eskatzen du. Egunean

behin lehiaketak egunean minutu bat edo bi kentzen dizkizu. Lagunekin umore giroan aritzeko aukera ematen du eta horretan datza. Egunean behin, jolasteko minutu bat edo bi denok ditugu.

Ez zarete elkar ezagutuko baina lehiakideon arteko sare bat, komunitate bat eraikitzen lagundu du lehiaketak?

Egia esan 29.000 pertsonen parte hartzea une jakin batean, denak zuzenean Euskal Herri mailan, arrakasta handia iruditzen zait. Harrigarria.

Zure kasuan, ez zen lehiaketan parte hartuko zenuen lehen aldia izango?

Aurrekoetan finalak ezberdin

antolatzen ziren, sailkapeneko lehen 50 edo 100ek parte hartzen zuten. Ni ez nintzen sartzen hor, baina orain finalak irekiak dira eta nahi duenak parte har dezake. Horrek ere bere bizitasuna ematen dio.

Usurbilen ere talde bat bada, hor ere saltsa egongo da.

200etik gorako pertsonen talde bat dago. Egunero ikus dezakezu herriko sailkapena, lagun baten aurretik edo atzetik zauden.

Edizio hau amaituta, hurrengoaren zain?

Nik nahikoa egin dut jada. Halere, berriz hasten denean, hurrengo edizioan parte hartuko dugu.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Otar-Goxo
Elizkargariak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

‘Hotzak akabatzen’ probarako dortsak gutxi batzuk geratzen dira oraindik

Urtarrilaren 30erako Irisasi BTT antolatzen ari den “Hotzak Akabatzen” probarako izen emateak zabalik segitzen du. 500 lagunentzako lekua izango da.

Izen emateak oraindik zabalik segitzen duela ohartarazi du azken egunotan antolakuntzak; “dorsak gutxi batzuk ditugu oraindik”, zehaztu dute proba hau prestatzen ari den herritar taldeak sare sozialen bidez. Horregatik mugitzeko gonbita luzatu dute. “Ez utzi azken egunetarako”. Goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak frontoi ingurutik. Ohi bezala, Andatzari itzulia emateko aukera izango dute bizikleta gainean. Gogoan izan, ez da martxa lehiakorra izango. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko



Urtarrilaren 30ean egingo da lasterketa eta 500 lagunentzako tokia izango da. Artxiboko irudia.

IRISASI BTT HOTZAK AKABATZEN 2022

**“Izen ematea
rockthesport.com
atarian bideratu daiteke”**

ekimena da honakoa, nahiz 14 urtetik gorakoek ere par-

te hartu ahalko duten, beti ere une oro heldu arduradun bat ondoan badoa berarekin. Kaskoa derrigorrezkoa izango da.

Izen ematea rockthesport.com atarian bideratu ahalko da. Informazio gehiago Facebook-en, “Irisasi BTT hotzak akabatzen 2022” orrialdean.

Usurbilgo Ernai: “Urte berria borrokarako urtea izango da”

Sare sozialen bidez zabaldu duen mezuarekin, datorren hau iazko urtearen bide beretik joango denez, hasi berri dugun 2022a ere borrokarako urtea izango dela iragarri du Usurbilgo Ernai. Aldaketarik ez dute aurreikusten, 2022a ere, agurtu berri dugun urtearen ildo beretik datorrela diote. “Joan den

urtea urte gogorra izan da gazteontzat. Etengabeko prekarietatearen prozesuan murgilduak daude gazteak; ez lan duinik, ez emantzipatzeko aukerarik eta ikasketak modu duin eta doakoan egiteko aukerarik ere ez”.

Gazte antolakundearen esanetan, “etorkizun eza da

gazteoi eskaintzen zaigun bakarra”.

Eta epe motzerako ez dute aldaketa handirik espero. “2022. urtea bide beretik joango da. Horregatik diogu, urte berria borrokarako urtea izango dela, bizitzen aurka egiten duen sistema gelditu beharra baitago”.

Eskola Kiroleko lehiaketarik ez

Entrenamenduak bai baina Eskola Kiroleko lehiaketak bertan behera utzi dituzte urtarrilaren 28ra arte. Ikastetxeetako protokoloak ere aldatu dituzte; musukoaren derrigorrezko erabilera orokortu dute eta kutsatzeak egonez gero, konfinamenduak malgutu dira.

Eskertza

Poza eta esker ona helarazi du Nafartarrak taldeak udazkenean zehar Zuberoako ikastolak eta euskara laguntzeko bideratu duen otarren kanpainaren balorazioa egiterakoan. “Gustura geratu dira Sohuta eta Basaburuko ikastoletako gurasoak aurtengo kanpainarekin, eta baita saski hauek osatzen diharduten ekoizleak ere”. Aurreko edizioako emaitzak hobetu dituzte, “2.300 saski baino gehiago Euskal Herri zabalean banatuz. Gure herrian ere, emaitza onak izan ditugu, guztira 224 saski banatu ditugu eta honela, 11.240 euro lortu dira Zuberoako ikastolentzat”. Zenbakiokin, “gure herrian elkartasuna badela ikusi dugu”. Eta eskerrak helarazi nahi dizkiete, “saski hauek erosi dituzuenoi, banaketan laguntzen ibili zaretenoi eta gainontzeko bidelaguntzietei”.

Datorren urterako hitzartu gaituzte. “Espero dugu hurrengo kanpainan ere elkar ikustea! Eskerrik asko Usurbil”.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Iñaki
Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com
600 024 825

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Alokairuan

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, mas-

kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444 /atxega@atxegajauregia.com

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaeretakako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu

telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu, txandaka, goiz eta arratsalde. Hilabetean 15 ordu. Euskalduna izatea. 666 925 378 (Esti).

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak

ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Ingeleseko, frantseseko eta latineko klaseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaiaren aurkitu baduzu deitu 685725681 telefono zenbakira.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Irati!**

Urtarrilaren 8an 4 urte bete dituzu.

Muxu handi bat etxekoan partez.

Pilota partidak**Usurbilgo frontoian**

Urtarrilak 14, ostirala

18:30 Errendimenduko binakako txapelketa:

■ Alebinak, 2. maila:

Vidal-Manterola - Mundarro

■ Infantilak, 2. maila:

Ibarreta-Zabaleta - Hernani

Eskubaloit partidak**Oiardo kiroldegian**

Urtarrilak 15, larunbata

■ 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga: Zarazpe Usurbil K.E.-Zaisa Bidasoa Irun

■ 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-BM Bidasoa Irun

■ 19:30 Senior mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Mugarri Ingou Arrasate

Urtarrilak 16, igandea

■ 09:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Zarazpe Usurbil K.E.-Egia Indaux

■ 11:30 Jubenil neskak, Gipuzkoako igoera fasea: Usurbil K.E.-La Salle Saieko

Goardiako farmaziak

Osteguna 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda

urtarrila

14 ostirala

15 larunbata

16 igandea

■ **Usurbilgo kurgileen elkargunea eraitzeko bigarren saioa.** 10:00-13:00 artean Potxoenean.


■ **Joxan Artzeren oroimen arratsaldea.** Antologia aurkezpena eta Oskarbiren kontzertua 18:00etan hasita.

Joxan Artzeren antologia bat aurkeztuko dute larunbatean

Sortzaile usurbildarra hil zeneko laugarren urtemugan, arratsalde pasa antolatu dute Jexux Artze K.E.-k eta Usurbilgo Udalak larunbaterako. Ekitaldiotarako izena aurrez bideratu behar da usurbilkultura.eus plataforman:

■ 18:00 Balea Zuria argitaletxeak Joxan Artzeren poemak bildu eta antologia osatu du. Lan honen aurkezpena Mikel Laboa plazan, euria bada Sutegin.

■ 19:00 Oskarbi taldearen kontzertua Sutegin. "Ez Dok Amairuren ernamui-nak Artzeren idatzi asko musikatu ditu. Kantu horiekin zein euren ibilbideko



Mikel Laboa plazan egingo da aurkezpena. Euria bada, Sutegin. 18:00etan hasiko da ekitaldia.

eta azken diskoko sorkuntzekin osatuko dute emanaldia".

Urtarrilaren 22an, "Bidaide" antzezlan-a Sutegin

Udalbiltaren "Geuretik sortuak" izeneko beka deialdiaren baitan Metrokoadroka Sormen Laborategiak ondu duen 'Bidaide' antzezlan-a ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 22an larunbata, arratsaldeko 18:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak aurrez eskuratu ahal-ko dira

usurbilkultura.eus plataforma bidez.

Idoia Beratarbidek eta Iraia Eliasek zuzendari eta aktore lanak egiten dituzte. Bi zuzendariez gain, Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi eta Idoia Hernandez "Haxte" aktoreak ere igoko dira ohol-tza gainera.

Datozenak

Desazkundeari buruzko hitzaldia Sutegin

Krisi ekosoziala da gure garaiko datu funtsezkoa. Goitik behera baldintzatuko ditu gure biografiak, komunitateak, jendartea, mundua. Honi buruz arituko da Joseba Azkarraga EHUKo irakasle eta ikertzailea.

■ Urtarrilak 27 osteguna, 18:30 Sutegin.

■ Sarrera: doan, baina tokia hartu behar da usurbilkultura.eus web orrian.

■ Antolatzailea: Anerreka elkarte.

"Apaiz kartzela" dokumentala Sutegin ikus ahal izango da

Hilabetea, "Apaiz kartzela" dokumentalaren proiektioarekin agurtuko dugu urtarrilaren 30ean. "Bidaia erreal bat egoera itxuraz irreal batean. 1968-1976 aldian Zamorako apaizen kartzelan preso egon ziren lau apaiz presongira itzultzen dira. Apaiz horietako batzuek hamar urtetik gorako zigorrak jaso zituzten frankismoaren errepresioa salatzen zuten sermoiengatik". Emanaldiaren ostean solasaldia izango da zuzendari eta protagonista banarekin. Usurbilgo Udalak antolatutako hitzordurako sarrera 5 eurotan eskuratu ahal-ko da aurrez, usurbilkultura.eus web orrian.

Uraitz, s.l.
Igeltzeritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
(ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

URDARRA

URTARRILAREN 15ean
irekintzen dugu!

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTKETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



IREKIERA:

URTARRILAREN 15ean LARUNBATA 20:30etan

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasun neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga ouzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



BEH ERA PEN-en zozketa



200€

Irabazi **200 €**-ko opari-
txartela eta Eva Linazasoro
Personal Shopper-arekin
saio bat.



Porte hartzeko informazio gehiago www.urbil.es -en edo Bezeroaren Arretarako Gunean.

BLOG



urbil.es